

KRISTAUEN GAITZEK (Enfermedades de las personas)

Arin Dorronsoro'tar Juan jaunak argitarazi gabe utzi
zitian paperetan bildua

(De los papeles inéditos que dejó D. Juan Arin Dorronsoro)

1

Aidea (reumatismo)

Aide-belarra jo eta aren izardikin igurziaz kentzen die **aidêk**. (Gantxelu, Iturrioz).

Azaribuztana «cola de caballo» egosi eta aren urêkin kentzen da aidea. (Erremedio).

Aidêk jotzen dônên oso ona da **azaplari-belarran** zumôkin igurtzitzea. (Gantxelu).

Edozein aide-miñ kentzeko egosi **andureea** perz baten, busti zapi bat ur artan eta igurtzi miñe daon tokie zapîkin.

Baita ere oso ona da **anduera** egosin uretan sartu ta mañue artzea edo ur ura irakiten daola lurriñe artzea. (Lizarrusti).

Audituta aide-miñe daukenên **intxusa-lorak** egosi eta aan lurriñe artu. (Arbotoneta).

Aidemiñekin goortuta daonen esnetara bota kara arri gurik eta aan lurriñe artu. (Saltse-berri).

Ayen-belar edo **irusarbik** emateitûn pipita gorrikin, aidemiñe daon tokin igurtziz, miñe kentzen da. Asko erretzen doea. (Arrateta).

2

Erroma-aidea (reuma)

Irustarbin pipitak txiki txiki ein, alkoholetô bota ta gorde botellan. Arekin igurtziz sendatzen die erromak. (Zubimusu).

Asune erromak igurtzitzeko izen oi da. (Mordazulo).

Irasarbin-pipita gorrik txetuta igurtzi eta lotuta jarri miñên gañen. (Mordazulo, Gantxelu).

Erroma-aidea sendatzeko litro erdi bat **aguar-rasi** arrautza gorringoa nâstu eta 24 ordûn euki. Berriz ee nâs-nâs ein eta arekin igurtzi egunen bi aldiz miñek utzi arte. (Mordazulo).

Erroma belarrân urekin igurtzitzea ona, Gantxelukok ein zôn, baño etzan sendau. (Baratzatan eta ontzitan izaten die. Ezpatên erakoa, baño ertzên arantzadune). (Lizarrusti, Gantxelu, Iturrioz).

Erromeroa egosi ardotan eta, irakiten daonen, aren lurriñekin biguntzen da erroma-aidea. Gantxelukoa olaxe sendau zan. (Age-re, Gantxelu).

Erromeroa prasatara bota eta aren lurriñe artu eta irauska edo eun berrikin igurtzi. Odolân ibilketa jartzen do eta ona da erroma-aidek sendatzeko (Mordazulo).

Erromak kentzeko olio irakiñetan egosi **intxusea** eta nâstu beorak kanpon eindako simaurre. Geo oyal batên pasau eta ur arekin igurtzi. (Lizarrusti).

Erroma-aidentzat egosi **untze** eta aren lurriñe artu eta geo mantan bilduta egon. (Erremedio).

Erroma ziatikântzat jarri prasea auntzi batên, txingarretara **untzek** bota eta aren lurriñe artu miñen azpîn bea jarrita eta oyalâkin es-taliaz. (Zubimusu).

Iru **baratzuri** korkorxamarrak txetuta, baso-erdi bat urtan artu goizên baraurik. Amar eunên artu eta erroma-aidea jûten da. (Etxe-belz).

Erroma-aidea sendatzeko **gerrie neurtu argizarikin** eta argizari ori Aizkorriko Gurutze-Santûri eaman argi eiteko. (Mordazulo). Askok, berriz, Kalbario Santuko gurutzeri eamaten dioea. (Mitxelene).

Txingarretara bota **baratzuri** eta **olio** puska bat eta aren lurriñe artu. (Telleri-azpikoa).

3

Agiñeko miñe (dolor de muelas)

Baratzurie jo, oyalên bildu eta anka azpîn jarri, agiñeko miñe kentzêko, aidea tiatzen do ta. (Etxebelz).

Agiñeko miñe kentzêko **malmak** egosi eta ur ue aldan berona auan eballi. (Aitzaundieta).

Agiñeko miñekin au sapaiko aunditurea daukenen **malmak** egosi, karaitz arri gurik bota ur artara eta aren lurriñekin sendatzen da. (Lizarrusti).

4

Aizek (vientos)

Añisen ure ean oi da aizêk kentzeko. (Lauztiturrieta, Lizarrusti).

Santio-belarra egosi eta aren ure eatea ona da aizek etâtzeko. (Gantxelu, Iturrioz).

Aizek etâtzeko **tea** artu. (Alleko).

5

Anjinak

Ur egosîri **eztie** nâstu eta gargaizok ein. (Errondo).

Plantilla-balar egosîn urêkin gargaizok ein. (Ordizia).

Anjina-belarran urêkin gargatu. (Iturrioz).

6

Anka biurritzea (retortijón del pie)

Anka biurrentzat **andurea** egosi, ur artara kara aitz arri gurik bota eta aren lurriñe artu. (Lizarrusti).

Ankea biurritutakon **untzek** egosi eta aren lurriña artu. (Mitxelene).

Anka biurrituntzat **ardo egosîn** zapia busti eta arekin bero-berôn lotu. (Mordazulo).

7

Amesak (sonambulismo)

Lozorrôn kontra Arriaranea —elizara— jûn, kandelak eamanez limosna. Mitxelenekok jûn zien eta sendatuta geatu zien. (Iparragirre, Mitxelene).

Lozorrôn kontra Naparroko Salinasea jûn, ango uretan busti eta limosnân bat utzi an. Mordazulokoa jûn zan eta erabat sendau zan. (Mordazulo).

8

Arantzak (espinas)

Arantzak etâtzeko **urdaï gizona** jarri gañên lotuta. (Etxe belz).

Arantzea etâtzeko **gatzagi azala** gañen jarri. (Mordazulo).

Arantzea etâtzeko obena **sugên azalakin** bil-tzea da. (Gantxelu).

Txerri ordotsan beazune da onena. (Mordazulo, Iturrioz). Ataunen, lénago, txerri ordotsân beazune gordetzeko oitura aundie zan. (Saltse-berri).

Tipola-burûn orrie oliotan igurtzi eta, arekin loturea eiñez, arantzea etâzzen da. (Lizarrusti, Aiztondo).

Arantzêntzat, barrûn geatzen danên, **arantza-belarre** egosi eta, ogi mamikin enplastoia eiñez, lotzen dala, arantzea etâzzen da. (Mordazulo, Iturrioz).

9

Arnasa estue (respiración difícil)

Arnasa estua sendatzeko soiñe **gantzaakin** igurtzi. (Mordazulo).

10

Atza (sarna)

Atz-belarra egosi eta ur arekin garbitu eo igurtzi gorputze eta kentzen da. Onena atz-belar emea da. (Iturrioz).

Atza sendatzeko **sufrea oliokin** nâstu eta berotuaz arekin igurtzi. (Mordazulo).

Zeberione-Saltsen 1906 garren urten pamilik atza arrapau zôn eta atz-belar egosîn urêkin sendau zien (Zeberione Saltse).

1875 garren urtên Gantxeluko Manuela Aldasorok atza arrapau zôn. Barberôk eman zion botikekin etzan sendatzen. Atz-belarrâkin asi zan eta aretxek sendau zôn (Gantxelu).

Urresuko umêk burûn atz zuri gaiztoa zeuken. Jito Milantonek sendau zôn. Sugea bizirik arrapau, burue illati pitzaki tartên kampoâ zôla, egosi sugea esnetan eta esne arekin igurtziz (Mordazulo).

11

Aulearra (afta)

Aulearra garbitzeko **eztie** (Mordazulo, Amilleta, Errondo, Lizarrusti).

Aulearrantzako **salbie** egosi, orren urei eztie nâstu eta aua garbitu, edan gabe (Erremedio, Olazaa).

Aulearra kentzeko **salbie** ardotan egosi, cta salbi egosin ostôkin aua garbitu. (Lizarrusti, Urresu).

Xaspeko txiki-belarra ume txikîri aulearra kentzeko da. (Gantxelu, Iturrioz).

Aulearrantzat gatzâkin ozpiñe egosi eta arekin igurtzi. (Lesarburu).

12

Begi-miñe (mal de ojos)

Begi-belarrân izardi-tantanak bota begiko miñe sendatzeko. (Lizarrusti).

Begi belarra egosi, onen urtan zapie busti eta, begik itxita, mañue eman gañeti. (Iturrioz).

Ogi-azala gazuretan beratu, eta arekin lotu Odola tiatzen do. (Etxe belz).

Intxusen kimue egosi, eta aren lurriñen jarri begik eta geo ur arekin beakin garbituz sendatzen da begitako miñe. (Arratiñea).

Begitako miñentzat ona da **larrosa** egosin urekin garbitzea. (Andralizeta).

Begitako katarroa kentzeko **manzanilla** egosin urekin igurtzi oi da. (Errondo, Amilleta, Lizarrusti).

13

Belarri-miñe (dolor de oídos)

Belarri-belarran izarditik lau tantan belarrin sartu. Batzutan sendatzen da. Belarri-belarra

etxe askotan gorde oi da lur piska batekin tella gañen. (Aitzio, Erremedio).

Belarri-miñentzat **belarri-belarra** oliotan prejitu eta olio ue belarrin sartu. (Andralizeta).

San Gregorioko olioâ (elizako argiontzikoa) belarriko miñe kentzeko ere ezta txarra. (Lesarburu).

14

Beltxorra (orzuelo)

Betazalên sortzen dien beltxorrak gezurra esan dalako etâtze emen die. (Errondo, Alleko).

Berritan, **galtzaidukin** igurtziz, atzeatzen da. (Etxe belz).

Belturre

Uztâu ta pasmabelarrâkin lotu. (Alleko).

15

Bêrakoa (diarrea)

Lar-puntak uretan egosi eta ean oi da, bêrakoa sendatzeko. (Amilleta).

Berakokin **arroz ure** ean. (Alleko).

Ur otza gauên intzetan euki eta azukrêkin ondo gozauta edan. (Andralizeta).

16

Berezko koskorra (inchazón)

Berezko koskorra izkutatzeko Lazkauko S. Prudentziori eraman sâr-landarea eta ango sakristauek agintzen dôn lekûn aldatu. Zârretatik datorren oiturea. Mordazuloko etxe-ko-andrêri ôlaxe izkutau zitzayon. Izarreko Jesusari eta Aringo Iginiri ere bai. (Mendiurkullo, Mordazulo).

San Prudentzioa jûn iru aldiz, promesa einda. (Andralizeta).

17

Biotz-errea (pirosis)

Biotz-errea sendatzeko **basisi-belarra** auan txetu eta aren izardia tragatu, belarra kampoâ botaz. (Alleko).

18

Botagurea (ganas de vomitar)

Botagurea kentzeko **xaspeko - aundi - belarra** egosi eta onen ure ean oi da. (Gantxelu).

Botagurentzat **manzanilla** artu. (Mordazulo, Erroyondo).

Gora jotzen dōnen, bera libratzeko **txisara-belarra** egosi eta aren ure eaten da. (Erremedio, Iturrioz).

Pasmabelar gorrie egosi eta onen ure eaten da bota-gurea kentzeko. (Iturrioz).

19

Buruko miñe (dolor de cabeza)

Buruko miñe kentzeko eskumuturreko zai-
neen gañeen jarri **baratzurik**. (Erroyondo,
Etxe belz).

Txindor-belarra egosi eta ur ue eatea ona
da buruko miñe kentzêko. (Gantxelu).

20

Ebakie (cortada)

Abigorrin ostoa da ebai-belarrak onena. Ostoa
azpie miñen gañen dala jartzen da. (Lizarrusti,
Lauztiturrieta).

Belar belzan ostoa ona da ebaie sendatzeko.
beâkin loturea eiten dala. (Amilleta).

Basoko ebai-belarra, ebaie eiten danen, lot-
zêko ona da. (Gantxelu).

Ebai-belarrai azala kendu eta ebaie gañen jar-
tzen da sendatzeko. (Aiztondo).

Ebaie sendatzeko **plantilla belarra** sutan be-
rotu, egur gañen jōz txamau zañek eta jarri
azpie zauri gañen dōla. (Gantxelu, Kobai).

Andramari-belarra zaurin gañen jarri senda-
tzeko. (Mordazulo).

Ebaie sendatzeko **mermena-belarrâkin** edo
mermenatxiki - belarrâkin lotu. (Munduate,
Gantxelu).

Ebaie sendatzeko **koska-belarra** oliotan bus-
ti eta arekin lotu. (Urresua).

Ebaie sendatzeko **pasmabelarrak** egosi, oliot-
tan piska bat erregosi eze-eze eta arekin
lotu zaurie. (Mendiurkullo).

Astalarra jo-jo ein, aren izardikin igurtzi eta
geo beakin lotzea ona da ebaie sendatzeko.
Saltse berri, Iberondo, Urresua).

Zaingorrie jo eta aren izardikin sendatzen da
ebaie. Baita ere zaingorrie egosi eta ur are-
kin igurtziaz. Eta zaingorrikin lotu. (Aralegi,
Lauztiturrieta).

Urratûk sendatzeko **koska-belarrân** izardikin
igurtzitzen die. (Maindi-berri, Gantxelu).

Intxusa-osto mardulek jo-jo ein eta uzten
doen izardia, bi edo iru aldiz oyalên pasau-
ta, botilla itxin gorde indarrak jûn be. Izardi
ori oso ona da ebai ta auditxûk sendatze-
ko. (Lizarrusti).

Segapotoko urekin garbitzea ona da segêkin
edo itaiekin eindako ebaie sendatzeko. (Ola-
zaa).

Ebaie sendatzeko ona da ardin errepe ondo-
do tortikea. (Andralizeta).

Ebai aundie ezin itzi danen, barrûn puzunibe
itxiaziteko, **ebai-belar** igarrak almaizêkin aus-
tu, ardo piska batekin nâstu eta ebai gañen
euki. (Iturrioz).

Ebaie eiten danen oliokin ondo busti, eta
ille-belarrakin lotûz, barrungo zikinkerie etâ-
tzen zayo. (Iturrioz).

Ebaie azkar ez ixteko eltzên jarri olio ta
ardoa, bitatik berdin. Egosi, olio-agerkeran
geatu arte eta arekin maiz-maiz igurtzi, zu-
loa itxi eztein. Oni balsamoa deitzen zayo.
(Mendiurkullo, Ustatso).

Zauria zikiñekin itxitakôn, **karakola mamik**
jo-jo ein, ardo piskabat bota gañea eta zauri-
gañen jarri lotuta. (Arbotoneta).

Zauria lertzeko olio epeletan igurtzi **illarrodo**
ostoa eta zauri gañen jarri oi da lotuta. Or-
tarako ori baño ere obegoa da **alz-ostoa**. (Li-
zarrusti, Lauztiturrieta).

Aza-ostokin ebaie lotzên da. Zornea aterazi-
teko ona da; azala eiten eztio uzten eta zor-
nea garbitu ondoren **koska-belarrakin** lotzen
da. (Mordazulo).

Argizari, olio, baratzuri ta **ardokin** eindako
emplastokin lotu ebaie edo zuloa. (Amuñain,
Gantxelu).

Pasmabelar gorrie, malmak, olio, argizarie,
gantza, erretxiñekin eiten da ukendue, ebaie
sendatzeko. (Lazkautei).

Ebai ta zaurik sendatzeko pasmabelar, olio,
jaboi eta argizarikin eiten da ukendue. (Li-
zarrusti).

Pasmabelar ayendune, pasmabelar txurie,
zaingorrie eta **apioa** oliotan erreta ondo zetu,
eta nâstu arguzarie eta orrekin sendatzen
da edozein ebaki. (Salete).

Ebai-belarra, zaingorria, pasmabelar gorrie,

perejilla, baratzurie, ardo txuri ta gorrie, ozpiñe eta olioa egosi eta argizarie nâstûz batu eta ukendu orrekin sendatzen da ebaie. (Arin-barbetxe).

21

Egosik (irritaciones o quemaduras producidas por el sudor)

Astaputzen autse bota. Lenao astaputzek bilduta etxêtan gorde oi zien. (Mordazulo).

Artirin autse ebaltzen zoên zârrak. (Etxe-belz).

Pipin egurreko autse bota. (Alleko).

Barên lirdikin igurtzi. (Mordazulo).

22

Elkarak (mordeduras)

Sugêk eltzen dônêen ebaki gurutzêtan, garbitu urêkin ondo, **pasmabelarrakin** lotu eta **pasmabelarrân** ure edan. (Saltse-berri).

Sugên elkarea sendatzeko ebaki gurutzêtan, ondo garbitu eta olio berôkin erre. (Andralizeta).

Erbiñurêk edo sugêk eltzen dônên **zaingorrie** egosi eta aren ure edan eta eldutako lekue igurtzi eta lotu. (Aralegi).

Erlêk eltzen dônên **erlebelarrakin** igurtziz sendatzen da. (Gantxelu, Izarre).

Erlêk eltzen dônên miztoa atera lenbizi, gero iru belar diferentêk auan txikitu eta ayekin igurtzi elkara lekue. (Saltse-berri, Kobai).

Sugên elkarea sendatzeko **eskuporta belarra** egosi eta ur orrekin eindako emplastoia jarritz puzunie kentzen zayo. (Iturrioz).

23

Eltorrek eta sorik (pecas)

Eltorra kentzen da **tipola** puskea lotuta jarritz. **Gaztiña** denboran morkotsa egosi eta aren lurriñe artu oi da. (Lizarrusti, Gantxelu).

Tipola-azala oliokin igurtziz eta arekin lotu. (Lizarrusti).

Beatzên berezko sorik kentzeko **tipola azala** au-gozokin busti eta arekin lotu. (Aitzio).

24

Enbargue (estreñimiento o sequedad del vientre)

Aitzeko garôn zuztarra egosi eta aren ure

eatea ona da sabela lejertzeko. (Gantxelu, Urresu).

Ario belza egosi eta onen ure ona da purga bezela. (Kobai).

Eiek egosi eta ân ure ean sabeletik libratzeko. (Amilleta).

Malmaiskun ure ean estomaoko leortasunen kontra. (Elemenditxe).

Malma-osto zabala egosi eta orren ure ona da sabeletik libratzeko. (Urresua, Iturrioz).

Barrundik libratzeko **bostorri-belarrân** zumotik laubat tanto katillu esneri nâstu eta edan. (Andralizeta).

Estomaotik ezin ein danên **aragie igurtzi jaboia**kin eta erlebelar txikikin nasi egosi eta aren urekin labatibea eman ez garbitzen da. (Astigarretxe).

Tartikue egosi eta orren ure ean-âzin. Ortarako tartikurik onena **tartiku-txurie** da. (Ola-zaa, Iturrioz).

Aur txiki estomatik leor daonên **garagar** alea egosi eta aren ure gozauta ematen zayo edaten. (Urresu).

Ume txikiri estomaotik libratzeko **ojaras belarra** egosi eta onen kutxarakara bat ean-âziten zayo. (Erremedio, Iturrioz).

25

Erpa (herpes)

Erpa-belarra egosi eta onen urêkin igurtzitzen da sendatzeko. (Iturrioz).

26

Errea (quemadura)

Errea sendatzeko oliokin igurtzi, **asun ostoa** jo-jo ein eta errên gañên jarri. (Lizarrusti, Lizarburu).

Errea sendatzeko ona izaten da **astaputzen autse**. Azala berealaxe eiten dio eta lenaoko zârrak gordeta euki oi zituzten. (Mendiurkullu, Saltse-berri).

Errea sendatzeko ona izaten da **elurre oliokin** nastu eta arekin igurtzitea. (Dorronsoro).

Intxusei gañeko azala kendu eta azalaren da txotxaren tarten dauken gie egosi eta ur arekin garbituaz sendatzen da errea. (Etxe-belz, Urresu).

Intxusen gie egosi eta ur arekin eta argizari-kin eindako ukendûkin sendatzen da errea. (Mordazulo).

Errea sendatzeko **pasmabelar gorrie** prejitu ondo oliotan, oyal zuri baten pasatu eta argizarie nâstuz eiten dan ukendue jarri. (Ustaso).

Erre egosik sendatzeko **olio, baratzuri, intxusa-zumo, ebai-belar, erlên argizari, asun** eta **abaskekin** eiten da ukendue. (Lizarrusti).

Errei azala eiteko beorran edo zaldin kam-poko simaurre legortu ta oliotan prejitu eta nâstu manteka piskabat. Geo arizko oyalên pasau. Zapie an busti eta errên gañên euki. Iru ordutik iru ordura aldatzen dala, ezta easten oyala. (Olazaa).

27

Eskuko babak (ampollas en la mano)

Eskuko babak sanotik zulau ta ure atera. (Mordazulo).

28

Eskuko ikarea (temblor de manos)

Garagarra ta **lizar ostoa** egosi eta ur ori edanez kentzen da eskuko ikarea. (Zubimusu).

29

Eztarriko miñe (mal de garganta)

Eztarriko miñe arintzeko **oregano** egosin ure edan. (Gantxelu, Erroyondo).

Erle belarra egosi eta orren ure bi edo iru aldiz eanez eztarriko miñe kentzen da. (Gantxelu).

Eztarri belarrân ure eanez eztarriko miñe kentzen da.

Eztarri belarrak lora piñe ta gorrie izaten do (Munduate).

Plantilla-belar egosin ure eanez sendatzen da eztarriko miñe. (Zubimusu).

Eztarriko miñe **eztikin** sendatzen da. (Lizarrusti, Zubimusu).

Eztarriko miñe sendatzeko zapie ur otzetan busti eta arekin lepoa lotu, sarritan berritzen dala. (Mordazulo).

Eztarriko miñëntzat eta anjiñantzat boltsa txiki batên sutako **auts gordiñe** bero-bero le-

pôn lotuta jarri. Beste batzûk zâye jartzen dioea. (Erroyondo, Mendiurkullo).

30

Eztule (tos)

Oregano eosin ure eanez umêri eztule asko atzeatzen zaye. (Urresu).

Malmaiskue eta **garagarra** egosi eta ur ori eanez eztule atzeratzen da. (Gantxelu, Erremedio, Urresu).

Intxaur osto egosin ure eaten da eztulêntzat. (Olazaa).

Eztul-belarra egosi, onen urêkin bete basoa erdiraño, azukrea bota eta ori edaten da eztule kentzeko. (Iturrioz, Lauttiturrieta, Urresu).

Zurrukapotea, ardoa egosi, su emanez alkohola kendu eta azukrêkin gozatuz edan eztule sendatzeko. (Mordazulo, Alleko, Izagierre).

31

Garatxök (verrugas)

Garatxok aurrena tella koskôkin urratu; geo **ario-belar-esnêkin** igurtzi; egun batzutan garatxok dana igartuta belz-belz eiten die eta azkazalakin kenduz sendatuta dare. (Saltseberri).

Azelarran zumôkin igurziz sendatzen die garatxok. (Kobai).

Garatxo-belarrân zumôkin igurziz sendatzen die garatxök. (Urresu, Gantxelu).

Pagazuloko urêkin igurzi az jûten die garatxok. (Aitzio).

Garatxök kentzeko: kontau eiêkin eta geo eie lên bezela jarri zuztarra lurrên sartuta zuti eta garatxoak sendatzen die. (Mordazulo).

Garatxök sendatzeko **eiekin** igurzi oi die esanez: «Garatxo, jûn ai; garatxo, jûn ai». Geo ei oek jarri izkutauta garatxok dauzkenak eztakin tokin, ustaldu arte. Ak ustaltzen dienen, jûten die garatxok. (Kobai).

Garatxök kentzêko sutara bota bear die zenbat garatxo dauzken ainbeste **gatz ale** esanez: «Ara angaila bat, ara bi, ara iru» etc., eta garatxok kentzen die. (Gantxelu).

Garatxök beatzi ostielatan **baratzurikin igurtzi**. (Andralizeta).

Garatxôk dauzken aiñe txanpon eskalei eman eta sendatzen die. (Amilleta).

32

Garrotillo edo **zintzurmiña**

Garrotillôntzako **anjina-belar** edo **trakillu-belarrân** urêkin gargatu. (Lauztiturrieta).

33

Zanpatekoak (golpes)

Zanpatekoa **gatzâkin da urêkin** igurtzi eta lotu. (Mordazulo).

Zain-belarra zampatu eta jartzen da mazatûn gañên, sendatzeko. (Gantxelu).

Mazatue sendatzeko **linazie** erre, nastu **olioa** eta mazatûn gañên lotu zapîkin. (Erroyondo, Aitzio).

Mazatûntzat, **azukra** eta **olio** gordiñêkin lotu. Golpêri azukrêk jaten dio mazatun beluntasune. (Lizarrusti, Mitxelene).

Kopetan mazatue artu eta urratue eiten danên **siatxeko zotala** jarri miñên gañên belarrez kampo dala eta lotu gañetik zapîkin. (Aitzio).

Erromero-txotx egosin urêkin eta ogimami edo zayêkin eindako emplastôk golpea biguntzen do. (Olazaa).

Txingartara bota **baratzurie** eta kutxarakara **olio** batzuk eta aren lurriñêkin sendatzen da golpea. (Telleri-azpikoa).

34

Gorreie (sordera)

San Gregorioko lamparako olio sartu oi da belarrin gorreie kentzeko. San Gregorio egunez sailek etorri oi die ortara kampoerritak. (Mordazulo).

35

Goortasune (endurecimiento)

Gaxo goortuta daonên, **San Joanetan beinkatutako mirue** egosi pertzên eta **arrillukoskor** berôk ur artara sartûz, aren lurriñêkin izardituaziten zayo. Mirue, erramue eta menda-piñe batên sartzten die eta iruek nâsin izan ezkeru, obe. (Gantxelu).

Pasmabelarrak, malmaiskue eta **San-Joan-belarrak** jarri prasa gañên eta oen lurriñe artea ona da goortasune kentzeko. (Olazaa).

36

Guntxurdiñeko miñe (mal de riñón)

Azari-buztanân eta **narrubi-belarrân** ure nâsin edanez guntxurdiñeko miñe sendatzen da. (Zubimusu).

Guntxurdiñeko miñêntzat jartzen da **maskulu-belar beltzakin** eindako emplastoa. (Iturrioz).

37

Indarra eitea (adquisición de fuerzas)

Gaxo ondoren indarra eiteko **erromero-txikin** kutxarakara bat ur nâstu ardo edo saldêri eta artu oturduero. Estêtako igikarea jartzen do. (Gantxelu, Iturrioz).

38

Isipula (erisipela)

Isipula sendatzeko **ur irakiñên** lurriñe artu. (Mordazulo).

Isipula **eztikin** sendatzen da. (Mordazulo).

Belar-onen eta **erramu** igarrân ostôkin lurrindu. (Errondo).

39

Itxautzie (grietas de las manos)

Gantzaakin igurtzi. Beste batzuk **pikea** erretzen jarri eta aren salda-tantôkin erre. (Andralizeta, Mordazulo).

Argizari, puru, **pasmabelar** eta **oliokin** eindako ukendûkin igurtzi eta gero **plantilla-belarrakin** lotu. (Kobai).

40

Itxue (divieso)

Aunditxûntzat eta danentzat ona da **abigorrie**. Jartzen da ostoz azpie miñên gañên dala eta lotu gero. (Lizarrusti).

Eskûkin piska bat txabaldû **illarrondo-belar** ostoa, epeldû su gañên, olio gordiñetan igurtzi eta itxûn gañên jarri lotuta. (Lizarrusti).

Malmea egosi eta bera-bera dagonên mantekaz igurtzi eta itxu gañên jarri. (Amilleta).

Mermena-belarra ona da ebai, aunditxu eta edozeñentzat. Baita ere **mermena txikie** berâkin lotuz. (Erroyondo, Munduate, Gantxelu).

Aunditxue sendatzeko **belar-belzân** azpie jarri aunditxûn gañên oliotan igurzita. (Lizarrusti).

Intxusa-ostoa jo eta aunditxûri gañên jarri. (Lizarrusti).

Itxûk sendatzeko **esne purue** eta **ogi mamie** egosi. Olioa baratzurikin erre eta nastu danak emplastoa eiteko. (Olazaa, Gantxelu).

Aunditxue sendatzeko **malma**, **ogimami** eta **olio** errekin eiten da emplastoa. (Urresu).

Itxue sendatzeko **esne purue** eta **ogimamie** egosi, **olioa baratzurikin** erreta **lirio-belarra** eantsiz nâstu danak. Itxue ezin lerturik dagona bada, emplastôri botilla belzân birdigue bota gañea. Emplastoa arizko oyalên bildu eta itxûn gañên jarri. (Gantxelu).

Uztaue sutan epeldu, **oliotan** busti eta itxu lertu gabên gañên jarri. (Erroyondo, Mitxelene, Etxebelz).

Itxue lertuta badago jarri emplastoa eta emplasto gañetik **uztaue**. (Etxebelz, Mitxelene).

Edozein aunditxui zornea ein-âziteko **zorna-belar-txikie** egosi eta **belar onekin** eta **ogi mamikin** eiten da emplastoa. (Gantxelu, Iturrioz).

Itxue leartzeko **gatzagi-azala** sutan epeldu eta itxûn gañên jarri. (Lauztiturrieta).

Itxue zornea ematen asten danên **uztau** ostôkin lotu oi da. (Mordazulo, Aiztondo, Gantxelu). **Irauzti**=zornatu. **Malmea** esnêkin egosi ta ona da itxue zornatzeko. (Basazai, Ustatso).

Ogimami egosiri **esne** ta **gatzagie** erantziz eiten dan emplastoa ona da itxue zornatzeko. (Ustatso, Basazai).

Itxue lêrtzeko zartagin **esnea** jarri, ogi pauptue bota irakiten dagon garayen, oyal zuri gañên zabaldu, arrautza gorringoa gañên jarri txabalanetâ, arekin lotu itxue. (Andralizeta).

Esne, **tipula** eta **mantekêri** nâstu **ogiriñe** goortzeko eta emplasto ori jartzen zayo kallo lêrtûri, tiatu dezan. (Arrateta).

Beatzen **karmungoa** esaten dan gaitze sendatzeko, **karmungo-belar egosin ur**, **olio**, **manteka** eta **orrantzakin** eindako emplastôkin lotu. (Zumardi, Iturrioz).

Plamenkoa, arra sortuz miñ aundie ematen dona, sendatzeko **baratzurie** jo-jo ein, **ogirin** ealki gabea, **orrantza**, **ozpiñe** eta **olio**, **baratzuri** errekin eiten zayo emplastoa. Sendatzen asten danên, **karmungo belar** egosin urêkin ondo garbitu bear da. (Gantxelu).

Lirio-belarra egosi ta **ogiriñekin** emplastoa eiñez, ona da plamenko edo itxu leorrantzat. (Gantxelu).

Erlekirtenak **ziarrân** zumôkin igurziaz kentzen die. (Gantxelu, Iturrioz).

Txingarretara bota zierra-motx belarrân azik, ankea jarri aren lurriñên eta berotasun arekin pampostatik moxorrôk ateratzen die. (Andralizeta, Gantxelu).

Itxue zornatu ezkeru ur egosikin garbitu. Iru aldiz edo bost aldiz, zotz goiti beti eta aldi bakoitzen litro bat ur. (Gantxelu).

41

Jan betea (estômago cargado)

Jan betêkin **larramillo** egosin ure edatea ona da. Baita ere ona da mantekea jan-âzitea edo jaboi-aparra ean-âzitea. (Erremedio).

42

Kalenturea (fiebre)

Kalenturea kentzeko **gantza** urtu eta arekin igurtzi korputze. Umêk ondoeza sentitzen dônên, lëndik izen da oiturea umea **gantzaakin** igurzitzekoa. (Mordazulo).

Kalenturea kentzeko **irasarbin** pipita gorrik jatea ona da. Ume txikiri ezpañetan jartzen zayo kalenturea kentzeko. (Zubimusu).

Malmaiskûn zain egosin ure eaten da kalenturâk kentzêko. (Agerre, Iturrioz).

Amabirjiña-belar aundie egosi eta onen ure eaten da kalenturêkin daonen. (Gantxelu, Iturrioz).

Golpea artuta kalenturêkin daonên **maiz-belarrân zumôkin** emplastoa eiñ eta golpên gañên jarri oi da sendatzeko. Maiz-belarra mayetzên agertu eta mayetzên galtzen da. (Iturrioz).

43

Katarroa (catarro)

Katarrôntzat esnêri, irakiten daola, nâstu **eztie** eta gero edan, oyan beron eoten dala. (Andalizeta, Arbotoneta).

Garagarra egosi eta ur ura naiz nâstu larramilloa, tea edo malmaiskun urêkin eta eanez, bularra lasau eta kalenturea kentzen da. (Erroyondo, Urresu).

Malmaiskue eta **garagarra** egosi eta ur ura

eanez katarro gaiztoa atzeatzen da. (Gantxelu, Erremedio).

Zerba belarra egosi eta onen ure eanez katarroa kentzen da. (Gantxelu, Iturrioz).

Katarroa sendatzeko urekin eta linazikin ein emplastoia, mostaza bota gañetik eta arekin petxu ta bizkarra igurtzi. (Andralizeta, Alleko).

44

Kukus-etzula (tos ferina)

Petxu estue edo kukus-etzulekin daonên **jito belarra** egosi; baso batea bota karakolak eta azukrea eta aldizka ean, baten jito-belar eosin ure eta bestên **karakolen lirdie**. (Erremedio).

Arbi-ondoa ebai erditik, azpiko zatiri mami puska bat kendu eta ue bete azukre gorrikin. Jarri gañeko beste zatie bere tokin, arbi-ondoa osorik baleo bezela, eta gauen, preskuran, leyo kampotik euki. Goizeako barrungo azukrea beratuta edo urtuta eukitzen do eta kutxarêkin ue jan. (Andralizeta).

45

Leena (eccema)

Leenak **baratzurie** txetu eta arekin igurtzi. (Lizarrusti).

Irasarbin koskorrân zumôkin igurtziz kentzen da leena. (Maïndi berri, Olazaa, Gantxelu).

Illarrondôn zuztarrân zumôkin igurtziaz kentzen da leena. (Erremedio, Iturrioz).

Umei aubei edo aurpegin leen zurie ateratzen zayonên **siats-arbikin** igurtzi. (Aitzio).

46

Zainetako gaitze (mal de nervios)

Ezkilora egosin ure ean oi da zainek apaltzeko. (Lizarrusti).

47

Odol-gaitzek

(enfermedades de la sangre)

Odolmiñe sendatzeko **basa-erromeroa** egosi eta aren ure eaten da. (Gantxelu, Iturrioz).

Gantxillu-belarra egosi, eta aren ure eanez kentzen da odol-miñe. (Lizarrusti).

Zaingorrin ure eaten da odol-miñe sendatzeko. (Kamio).

Iturri-belarra egosi, gauên preskuran euki eta goizên baraurik basokara bat eanez odola ibilian jartzen da eta arindu oi da odol-miñe. (Gantxelu).

Ziñurri belza egosi eta onen ure, preskatzen danen gozatu, eta ean odol-miñe kentzeko. (Andralizeta, Amilleta, Mordazulo, Iberondo).

Odola metzeko

Asun-ure oso ona da odolân joeran. **Asun-zañe** egosi ta ur ura eanez izarditzen dala, odola meatzen da. (Erzillei, Gantxelu).

Odola meatzeko **belar-miñe** egosi eta ur ori goizên baraurik ean oi da. (Zuimusu, Gantxelu).

Santio belarra edo **sanginario belarra** egosi eta ur ori eanez odola metzen da. (Gantxelu).

Kearrea odola metzeko ona da. (Lizarrusti).

Karea egosi eta aren ure ean odola apaltzeko. (Elemenditxe).

Santio illarrea edo **sanginario txurie** egosi eta onen ure eatea ona da odola metzeko edo odol-miñe kentzeko. (Gantxelu).

Ure, baratzurie zukututa, ezpata, miru, erro-mero, erramu eta sanjoan-lorak, danak egosi, autsgordiñe bota odola metzeko eta oyen mañue artu txisarantzat eta odol-miñentzat. (Etxe-belz).

Odolan-golpea

Asune jo eta gero aguardientekin igurtzi odolan golpea sendatzeko. (Erroyondo, Zuimusu).

Odola gelditzeko **zotolakin** lotu belarrez kampora. (Andralizeta).

48

Ondoeza (malestar)

Ondoeza daukenên **aspelarra** beratu eta aren zumôkin igurtzi. (Gantxelu).

San Joanetan beinkatzen dien lora onak: **millue, ezpatea, menta-piñe, San Joan lorak**, etc. egosi eta aan lurriñe artu sendatzeko. Askotan aak erre eta kêkin edo suairekin berotu umen arrapak eta jantzi-âzin maskal daonên. (Arroyondo, Urresu).

Aur txikie maskal daonên txisara-belar ur-diñe egosi eta aren ure ematen zayo. (Erremedio, Iturrioz).

49

Ospelak (sabañones)

Ospelak sendatzeko **baratzurie** jo eta aren zumo edo saldêkin igurzi. (Lizarrusti).

Urgazi berôkin garbitu eta gero **baratzurikin** igurzi. (Kobai).

Ospelak kentzeko **ospel-belarra** su ondôn epeldu eta igurzi, geo beakin lotuz. (Gantxelu).

Basoko ospel-belarrân zumôkin igurziaz sendatzen die ankako ospelak. (Iturrioz).

Ziarrak edo ospelak kentzeko **ziar-belarrakin** igurzi. (Mitxelene, Amilleta).

Ziar azie jarri prasatan eta aren lurriñekin kentzen die ospelak. (Andralizeta).

50

Otzikarea (escalofrío)

Otzikarea daonen **arrillue** berotu, **baratzurikin** igurzi eta anakak aren kontra jarri estu. Oso ona da buruko miñentzako ere. (Mordazulo).

51

Papuk (granos)

Pipustak «papu» edo «odolan sue» ateratzen dienen ona da **azonzon belarra** egosi eta aren ure eatea, laurdenen bat bezela aldiko. Bi edo iru aldiz eatea naikoa da. (Gantxelu).

Edozein grano ateratzen danen **grano-belarran ostoa** oliotan igurtzi eta arekin lotu granoa. (Iturrioz).

Granok sendatzeko **intxaur ostoa** egosi eta arekin igurzi. (Mitxelene).

52

Pasmok (pasmos)

Pasmabelar orikin lotu eta **pasmabelar belza** izan ezker onena egosi eta ura ean-âzin. (Erremedio, Iturrioz).

Pasmoa kentzeko **malmea** egosi eta aren urêkin busti, igurtziz ondo. Geo malmak pre-jitu mantekatan eta pasmôn gañen jarri. (Arratiñea, Basazai).

Eridekin pasmoa pasatzeko bildurre daonen **pasmabelar gorrie** egosi eta ur ura **gozatuta** ean. (Aitzio).

Mermena egosin ure eatea oso ona da pasmorik ez sartzeko. (Kobai).

Zaingorrie egosi eta onen ure ean pasmoa ez azitzeko. (Gantxelu).

Olio, baratzuri eta amarbirjiña-belarrakin eiten da emplastoa pasmôn kontrakoa. (Lizarrusti).

Pasmabelar gorrie egosi, albait esnetan, esnêkin emplastoa ein eta edozein miñentzat ona da. (Basazai, Arrateta).

Lora onak, San Joanetan beinkatzen dienak, egosi ta gero **kara arri** gurik botaz irakiten jarri eta pasmoa atzeatzeko aren lurriñe artea oso ona da. (Kobai).

53

Perlesie (parálisis)

Perlesie sendatzeko **perlesi-belarra** oyalên bildu, su epelên euki jo eta aren zumôkin igurzi. (Gantxelu, Iturrioz).

Perlesi belarra egosi eta onen ure perlesikin daonak ean bear do, **zos goiti beti**. Bi-eandakôn irugarrena, eta lau eandakôn bostgarrena eta ôla. (Gantxelu, Amilleta).

54

Birika zikiñek (pulmones catarrosos)

Petxu aitziki edo zikiñe daukenen, **oreano** egosin ure ematen zayo petxue lasatzeko. (Gantxelu, Olazaa).

55

Pulmonie (pulmonía)

Pulmonie kentzeko ezta txarra **askizurie, ziñurrie** eta **sanginario-belar** egosin ure eatea Askie egarrie kentzeko eta bestêk odolân indarra kentzeko. (Maindi-berri).

56

Sarnea (llaga)

Berezko sarnea ateratzen danen, **ebai-belar orie** jo eta onen zumokin igurtziz sarnea, arro-arro eiñez, erortzen da, azpîn azala einda. (Iturrioz).

Sarnea eta edozein buruko miñ kentzeko **iek, tila** eta **intxusen** zumoa bota urei eta

irakiten jarriaz aren lurriñe artzea oso ona da. (Lizarrusti).

Pagazuloko urekin igurziaz buruko sarnea kentzen da. (Mordazulo).

57

Tripamiñe (dolor de vientre)

Artamixe egosi eta onen ure ona da sabeleko miñe kentzeko. (Lizarrusti).

Basakanak aguardientetâ bota eta ori edatea oso ona da tripako miñe kentzeko. (Kamio, Mordazulo, Lizarrusti).

Sabeleko miñe kentzeko ona da manzanilla edo larramillo añisatu apur bat nastuta. (Olazaa).

Tripamiñe kentzeko **pasmabelar ayendune** egosi eta aren ure eatea ona da. (Amilleta, Gantxelu).

Tea egosi eta ur ori azukrekin gozauta ean tripako miñe daukenen edo jan betekin azita daonen. (Aitzia, Astigarretxe).

Larramilloa oliotan prejitu, zapi bat busti an eta urdailleen gañen jarri tripamiñentzat. (Arbotoneta).

Mermena-belar igarra txe-txe ein, arrautza zuringokin nâstu eta estomagoko txulôn gañen jarrita eukitzen da tripamiñ edo aidea kentzeko. (Salete).

58

Txisarak (lombrices)

Txisara-belar egosin ure ean txisarak galtzeko. (Aiztondo).

Txisarâk galtzeko **txisara-belar**, olio erre ta ogi mamikin emplastoa ein eta sabelen gañen jarri epel-epel. (Erremedio).

Aski-zañe egosi eta aren ure artuaz txisarâk botaaziten die. (Olazaa, Iturrioz).

Umea txisarâkin daonen, **erramu beinkatue** erre eta aren ke edo aidên berotu atorrea eta jantzi umeri. Erramue txisaran kontra koa da. Gañera gauza onak gaitzik ezto. (Amilleta).

Txisarâk sendatzeko **baratzurie** oliotan erre eta olio arekin, oztutakôn, urdail-gañe igurzi. (Mitxelene, Mordazulo).

Txisarântzat ure, baratzurie zukututa, ezpata, miru, erromero, erramu eta San-Joan-lorak, danak egosi, ur ura oztu eta mañue artu ankâtan eta ondoren belar egosi oyekin igurtzi. Beste batzuk ur ori berotu eta lurriñe artzen doea, gañetik estalita. (Etxe-belz).

Baratzurie lertu eta eskumuturreko pulsun jarri lotuta eta txisarâk galtzen die. (Aitzio, Lizarrusti).

Txisarâk galtzeko **baratzurik** egosi esnetan, ondo gozatu eta edan. Geo uretan egosi baratzurik eta arekin labatibea eman. (Etxe-belz).

Bostorri-belarra egosi eta ur ura edan urdailleko artxirik (=ar-txirik) galtzeko. (Elementitxe).

Txisarântzat pulsûk igurzi **baratzurikin** eta baratzuri saldea artu. (Erroyondo, Mordazulo).

Txisarântzat baratzurik esnetan egosi eta esne ue gozatuta ean-âzin eta geo ur-esne (bik berdin), **baratzuri**, **manzanilla** eta sei **olio** tantokin labatibea eman. (Andralizeta).

Arkasatxak izateitu koskorak, ille dunek, intxaur alen erakök eta âk barrûn arra izaten doea. Ar ori gozopiska batekin iretsi eta galtzên die txisarâk. (Andralizeta).

Txisarântzat **baratzuri-illarea** jarri lepôn, kollarea bezela, oyalakin lotuta, txisarêk gora jotzen donen, ez itozteko; arek eztio uzten gôra. (Andralizeta).

59

Ur-zorrie (talitro)

Ur-zorrie eaten danen, galtzeko **lar-ostoa** txetu eta jan bear da. (Etxe-belz, Erroyondo).

Ur-zorrie edaten danen **usurie ean**. (Lizarrusti).

60

Usuri-gaitze (mal de orina)

Azari-buztanân ure larramilloa bezela artzea usurie ein-âziteko izaten da. (Olazaa).

Azari-buztana eta **lizar-ostoa** egosi eta ur ori ean usurie ein-âziteko. (Alleko).

Arto-bizarra egosi eta onen ure eaten da usurie einâziteko. (Lizarrusti, Erremedio).

Iruat **aitzeko garo** edo aunz-garo egosi litro bat urtan eta ue eatea oso ona da usurie eiteko. (Gantxelu).

Usurie ein-âziteko **salbi gorri** egosin ure ean. (Iturrioz).

Lapa-txiki egosin ure eatea oso ona da usurie einâziteko. (Olazaa, Iturrioz).

Usurie ezin ein danen **maldija-belarra** egosi eta onen ure eaten da. (Olazaa, Iturrioz).

Usurie gatzagatue edo lotue daukenak **pe-rejil** egosin ure goizen baraurik artu bear do. (Olazaa).

61

Zingiñe (mamitis)

Zingiñe (bularra gôtzea) sendatzeko **larramilloa** erregosi oliotan eta arekin igurzi. (Mitxelene, Arrateta).

Zingiñe sendatzeko **txerri-gantzarekin** igurzi. Baño txerri gantzak zingiñe sendatuatik, esnea atzeatzen do edo antzutu eiten do. (Mordazulo).

Ardin ille garbitu gabea bularran gañen jarri ta oyalakin lotu. Ardi-illên izardi-tortikêk mesede aundie eiten dio. (Andralizeta).

Zingin-arrie medalla bezela lepotik zinzilika eaman. (Andralizeta).